

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**63/2019 TXOSTENA****Gaiak:** URAk egindako zehazpen espedientearen ebazpenaren aurreko errekerimendua**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.2 artikulua**1. Aurrekariak**

Lehena: 2019ko azaroaren 5ean Zerbitzu Saileko teknikariak erabaki proposamena bideratu du Bermeoko Udalak Ur Agentziaren Jabari publikoa kudeatzeko zuzendaritzaren aurrean errekerimendua aurkezteko.

2. Oinarri juridikoak**2.1. Aplikagarria den araudia**

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua
- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua
- Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998ko Legea

2.2. Azterketa juridikoa**Udal ondasun eta eskubideen defendatzeari buruz**

Lehenik eta behin gogoratu behar da Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 68.1. artikuluarekin eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duen azaroaren



28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 220. artikuluarekin bat Udalak betebeharra daukala bere ondasun eta eskubideak defendatzeko dagozkion akzioak egikaritzeko.

Udalak daukan betebehar hori egikaritzeko beste administrazio baten aurrean bi aukera dazka: batetik, borondatezko errekerimendua egitea; eta bestetik, zuzenean auzi errekursoa jatzea.

- Borondatezko errekerimenduaren inguruan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998ko Legearen 44. artikulak zera dio:


1. En los litigios entre Administraciones públicas no cabrá interponer recurso en vía administrativa. No obstante, cuando una Administración interponga recurso contencioso administrativo contra otra, podrá requerirla previamente para que derogue la disposición, anule o revoque el acto, haga cesar o modifique la actuación material, o inicie la actividad a que esté obligada.

Cuando la Administración contratante, el contratista o terceros pretendan recurrir las decisiones adoptadas por los órganos administrativos a los que corresponde resolver los recursos especiales y las reclamaciones en materia de contratación a que se refiere la legislación de Contratos del Sector Público interpondrán el recurso directamente y sin necesidad de previo requerimiento o recurso administrativo.

2. El requerimiento deberá dirigirse al órgano competente mediante escrito razonado que concretará la disposición, acto, actuación o inactividad, y deberá producirse en el plazo de dos meses contados desde la publicación de la norma o desde que la Administración requirente hubiera conocido o podido conocer el acto, actuación o inactividad.

3. El requerimiento se entenderá rechazado si, dentro del mes siguiente a su recepción, el requerido no lo contestara.

4. Queda a salvo lo dispuesto sobre esta materia en la legislación de régimen local



Beraz, Udalak 2019ko urriaren 4tik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean aukera dauka hala ulertzen badu Ur Agentziak egindako zehazpen espedientearen ebazpenaren aurrean errekerimendua egiteko, aipatutako artikuluan zehaztutakoak betez.

- Administrazioarekiko auzi errekursoaren inguruan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998ko Legearen 45. artikulak besteak beste zera dio:

Artículo 45. 1. El recurso contencioso-administrativo se iniciará por un escrito reducido a citar la disposición, acto, inactividad o actuación constitutiva de vía de hecho que se impugne y a solicitar que se tenga por interpuesto el recurso, salvo cuando esta Ley disponga otra cosa.

Kasu honetan ere epea bi hilabetekoa izango da Lege bereko 46.6 artikuluarekin bat:

Artículo 46. 6. En los litigios entre Administraciones, el plazo para interponer recurso contencioso administrativo será de dos meses, salvo que por Ley se establezca otra cosa. Cuando hubiera precedido el requerimiento regulado en los tres primeros apartados del artículo 44, el plazo se contará desde el día siguiente a aquel en que se reciba la comunicación del acuerdo expreso o se entienda presuntamente rechazado.

Eskumenari buruz

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeakin bat eskumena Osoko Bilkurarena edo Alkatetzarena izango da, funtsezko gaiaren eskumenduna norena den kontuan hartuta. Izan ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.j artikuluan dio Osoko bilkuraren eskumenekoa izango dela errekerimendua edo errekursoa jartzea, baldin eta osoko bilkuraren eskumenekoa den gai baten ingurukoa bada. Hain zuzen ere dio Osoko Bilkuraren eskumenekoa dela “El ejercicio de acciones judiciales y administrativas y la defensa de la corporación en materias de competencia plenaria”. Ostera, 21.2.k artikuluan dio Alkatetzaren eskumenekoa izango dela, baldin eta errekeritu edo salatuko den gaia alkatetzaren

 <p>Agiri hau benetakoala dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztu ahal dozu. Kodea: 07E30003351300N0R5R1R5H3Y0</p>	<p>Sinadurea eta datea</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAIGUSIA - 18/11/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/11/2019 11:02:24</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2019IDA_DOK0165 Datea: 21/06/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unitadea: Erregistro nagusia</p>
--	---	---



eskumenekoa bada. Hain justu ere zera dio: *"El ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del Ayuntamiento en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro órgano, y, en caso de urgencia, en materias de la competencia del Pleno, en este supuesto dando cuenta al mismo en la primera sesión que celebre para su ratificación".*

Kasu zehatz honetan zehapen espediente bat den heinean, ulertzen da eskumena alkatzarena dela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s¹ artikuluaren arabera.

Prozedurari buruz

- a) Espedientean txosten teknikoa izan beharko da, non justifikatzen den Udalaren zein eskubide edo ondasun defendatu behar den, zergatik jarri behar den errekerimendua edo errekurtsoa eta txosten honetan zehaztutako baldintzak betetzen diren (baldintza formalak: epea, edukia...)
- b) Idazkari orokorrak txostena egin beharko du².
- c) Dagokion sailburuak erabaki proposamena bideratu beharko du, konpetenzia daukan organoaren aurrean. Kasu honetan, Alkatetzaren aurrean.

3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guzia kontuan hartuz, Bermeoko Udalak administrazioen aurrean bere ondasun eta eskubideak defendatzeko bi aukera dauzka: errekerimendua egitea

¹7/1985 Legearen 21. 1. artikula: *El Alcalde es el Presidente de la Corporación y ostenta las siguientes atribuciones: s) Las demás que expresamente le atribuyan la ley y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales.*

² Hurrengo artikuluekin bat: Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3. d.2, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.3. artikuluarekin bat eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua 221. Artikuluarekin bat.



edo auzi errekursoa jartzea. Horretarako txosten honetan adierazitako guzta bete beharko da.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, alkateak egoki deritzona erabakiko du.

Oh. Orri oinean sinatzailea eta data

